

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 2513

*EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 23koa, Kulturako sailburuordearena, musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak emateko Balorazio Batzordeko kideak izendatzen dituen eta Batzordearen osaera argitaratzen duena.*

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko martxoaren 29ko Aginduaren bidez, musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen da.

Agindu horren 9. artikulua xedatzen duenez, balorazio-batzorde batek dirulaguntza horiek emateko ebazpen-proposamena egingo du, eta Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bidez batzorde horretako kideak izendatu eta osaera argitara emango da.

Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordeko kideak izendatzea eta haren osaera argitaratzea. Beraz, Batzordean honako kide hauek izango dira:

Batzordeburua: Aitziber Atorrasagasti Calcedo, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Idazkaria: Imanol Arana Ariz (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria).

Batzordekideak:

a) Musika partituren edizioa: Jon Bagües Erriondo; Itziar Larrinaga Cuadra; Jose Manuel Tife Iparragirre. Ordezkoa: Elixabet Etxebeste Espina.

b) Musika proiektu unitarioak: Lorea Argarate Zubia; Mark Barnés Larrukert; Maite Bilbao Bartolomé; Raul Urquiza Perez. Ordezkoa: Mikel Unzurrunzaga Schmitz.

c) Musika-ekimen enpresarialak: Pedro Maria Leinena Mendizabal; Itziar Navarro Ibañez Eraso; Leire Palacios Eguiguren. Ordezkoa: Mark Barnés Larrukert.

d) Zuzen-Zuzenean zirkuitua eta Musika zikloak: Mari Jose Oria Eraso; Mikel Unzurrunzaga Schmitz. Ordezkoa: Raul Urquiza Pérez.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritz Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 23a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.